

HEGAZTIEN INBENTARIOA IRUDIDUNA

Testua: VIRGINIE ALADJIDI

Irudiak: EMMANUELLE TCHOUKRIEL

Itzulpena: JUANJOXE PETRIRENA eta MIKEL TABERNA

Azal gogorrez koadernatua. 21,5 x 30 cm. 80 or. 18 €

[Hegaztien Inbentarioa Irudiduna](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-173-4. Zientzia.

[Inventario Ilustrado de aves](#) (gaztelania)

ISBN 978-84-16721-01-6. Ciencias.

[Inventario Ilustrado das aves](#) (galegoa)

ISBN 978-84-16721-02-3. Ciencias.

[Inventari Ihustrat dels ocells](#) (katalana)

ISBN 978-84-16721-05-4. Ciències.

[Inventário Ilustrado das aves](#) (portuguesa)

ISBN 978-989-99583-3-3. Ciência.

Hegan egiten dute, arrautzak erruten dituzte, mokoa dute...

Baina horiek ez dira hegaztien pribilegio eksklusiboak:

sañuzarrak ere egiten du hegan (eta ugaztuna da),

barraskiloak (gasteropodoa) eta arrainek ere erruten dituzte

arrautzak, dortokak (narrastia) eta olagarroak ere badute mokoa...

Hegaztien berezitasun nagusia, beste inongo animaliek ez duten

ezaugarria, hauxe da: beren gorputza eta hegoak milaka lumaz

estalita daude...

Munduan badira 10.000 hegazti espezie baino gehiago,

eta haietatik 80 bildu ditugu liburu honetan: hala pinguinoa

nola kolibria; bai enara eta bai zozoa; hontza eta pelikanoa...

Hegaztien morfologia deskribatzeko balio duen hiztegi irudidun

ttipi bat dakar hasieran. Gero, espezie bakoitzari dagokionez,

argibide jakingarriak ematen dira: lumajea, elikadura mota,

estaltzeko ohiturak... baita sortzen duten kantua edo hotsa ere.

Hegazti bakoitzaren batez besteko tamaina eta hego-luzera

ere ikasiko ditugu, bata besterekin alderatzeko.

Bilduma honetako gainerako liburuetan bezala, honetan ikusiko

ditugun irudiak estilo zientifikokoak dira, zehaztasun handiz

eginak, garai bateko naturalistek beren landa koadernoetan

egiten zituztenen gisakoak: errotuladoretz nahiz tinta txinatarrez

marraztuak, eta akuarela bidez koloreztatuak; horrela lortzen

dute izaki zoragarri hauen irudi fin eta poetiko bat ematea.

Oso liburu erakargarria da, hegaztien irudi ikusgarriengatik ez ezik,

haiei buruzko eduki tekniko ulergarri bezain jakingarriengatik

ere bai, bertan erakusten baita nola egiten duten habia,

nola aieratzen diren hegan eta nola egiten duten kantua.



- **Gala:** hegaztien katalogoa, mundu osoko 80 espezie biltzen dituena.
- **Zeln adinetarako:** 6 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoak:** irudi naturalistak, akuarela koloreztatuak; badu hiztegi irudidun bat; irudi-orri bakoitzean, hegaztiaren irudiarekin batera, izen arrunta, izen zientifikoa eta deskribapena ematen dira; hegaztien ordenaren arabera sailkatuta; beste *Inbentario irudidunak*: «[dinosaukoak](#)», «[fruitu eta barazkiak](#)» «[animalien](#)».
- **Liburuaren lagina:** <https://issuu.com/kalandraka.com/docs/hegaztien-inbentarioa-eusk>

Virginie Aladjidi

Hainbat urtez gazteentzako aldizkarietan eta argitaletxeetan aritu da. Gaur egun, liburu eta testu bildumak sortzen ditu, Caroline Pellissier lankide duela.

<http://virginiealadjidi.blogspot.com>

Emmanuelle Tchoukriel

Arte Aplikatuaren ikasketak egin zituen eta ikusizko komunikazioaren arloan osatu zuen bere formakuntza, Parisko Estienne Eskolan sartu eta irudigintza mediko eta zientifikoa espezializatu baino lehen.

<http://tchouk-tchouk.blogspot.com>



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.pamiela.com

soltxate@pamiela.com